

## **GIL 52** Mirutegiko Eozenoko kareharriak (Entziako partzuergoa)



Mirutegi mendia.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 50' 49,47 " N  
Long.: 2° 18' 31,05 " W

- **UTM koordenatuak:**


X: 556.492,61 m  
Y: 4.744.064,86 m



### Nola iritsi

N-1 errepidean, Aguraingo irteera hartu, eta, ondoren, A-2128 errepidea, A-4130 errepidearekiko bidegurutzeraino, eta handik Okarizera.

Oinez joan daiteke gailurrera, Opakuako mendatetik.



Mirutegiko kareharriak.

## GILaren deskribapen laburra

Mirutegi mendia Urbasa mendilerroaren EAEko jarraipena da. Eozenoko itsas kareharriak oso ugariak dira Nafarroako Foru Erkidegoan, baina oso urriak Euskal Autonomia Erkidegoan.

Azaleramendu onena Mirutegi mendiaren gailurrean dago; han, segida jarraitu bat dago Goi Kretazeotik (haranaren hondoan) Eozenoko kareharrietaraino. Azken horiek, barne plataforma bateko ingurune bati dagozkio.

Multzoaren eboluzioan, pikorrak gero eta txikiagoak dira, oro har; konglomeratuzko kareharrietatik, kalkarenita finki bioklastiko glaukonitadunetara. Han, erraz aurkitzen dira nummilitak eta alveolinak, Eozenoko plataformako kareharriak berezko dituenak.

## Behatzeko punturik onena

*In situ* edo Okariz herritik.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 21, GIL 31, GIL 68.
- **Gaiari dagokionez:** Ez dago.

## GIL-aren balorazioa

| Balorazioa                            |                        | Baxua | Ertaina   | Altua       | Oso altua |
|---------------------------------------|------------------------|-------|-----------|-------------|-----------|
| <b>Interes zientifikoa</b>            | Geomorfologikoa        |       |           |             |           |
|                                       | Hidrogeologikoa        |       |           |             |           |
|                                       | Tektoniko/Estrukturala |       |           |             |           |
|                                       | Estratigrafikoa        |       |           | ●           |           |
|                                       | Paleontologikoa        |       |           |             |           |
|                                       | Petrologikoa           |       |           |             |           |
|                                       | Mineral-hobiak         |       |           |             |           |
|                                       | Beste batzuk           |       |           |             |           |
| <b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b> |                        |       | Iraganean | Potentziala | Martxan   |
| <b>Interes kulturala:</b>             |                        |       |           |             |           |
| <b>Oharrak:</b>                       |                        |       |           |             |           |

## Bibliografia espezifikoa

- EVEren mapa.